



Taloak ontziratuta merkaturatzen lehenak

LEITZA ▶ Leitzako Talotegia ireki
dute, ontziratutako taloak saltzen
dituen aurreneko lantokia

PROZESUA ▶ Guztia bertan egiten
dute, eta «berebiziko garrantzia»
eman diote lehengaiari ▶ 7




Leitzako Talotegia lantokiko bi langile, egindako taloak ontzietan sartzten. J. ASTIBIA

TOLOSA ▶

‘Poesia mugikorra’, bidaiatzeko

Enrique Zalduren lanak ikusgai daude Aranburu
Jauregian; «barne bidaia bat» proposatzen du artistak ▶ 2



Zalduren lanetako bat. E. EZEIZA

LEABURU-TXARAMA ▶

N-130 errepidearen «egoera txarra» salatu dute

Lizartatik Txaramara
bidean, ubegia igarota,
bide alboko haitzak
«erortzeaz» daude ▶ 6

AMEZKETA ▶

Sehaska kantak guraso berrientzat

Diskoa oparituko die
Euskara Elkarteak ▶ 5

TOLOSALDEA ▶

Loatzoko ikasleak, jendaurrean trebatzen

Elgoibarko lehiaketan
aritu dira; Eskusoinu
Topaketara doaz ▶ 4

TOLOSA ▶

Bolada onari eutsiz, hiru puntu Hegoalde

9-5 irabazi du, eta
zortzigarren da
sailkapenean ▶ 3

ERAKUSKETA ▶

'Poesia mugikorra', bidaiatzeko tresna

Enrique Zaldua artistaren lanak Aranburu Jauregian daude ikusgai; apirilaren 22ra arte bisita daite «barne bidai»

ESTI EZEIZA

«Barne bidai» bat», hori da Enrique Zaldua margolariak bere lan berriarekin proposatzen duena. *Poesia mugikorra* izenarekin Tolosako Aranburu Jauregian dago ikusgai apirilaren 22ra arte. Egileak hau proposatzen du erakusketara honekin: bidaiari dibertigarri bat, bakoitzak bere kabuz dituen barne sentsazioak, bihotza eta besteekiko erlazioak ezagutzeko txango bat. Azken batean, Zalduaren ustez, dena bidai bat da, maitasunetik eta maitasunera egina, betiere, umore pikka batekin. Kolorea bizitzaren irudi bezala interpretatzen du, eta bizitza maitasunaren ikur. Horregatik, kolorea erabiltzen du bere proposamenaren oinarri. Kolore biziak, borti-

tzak, eta batzuetan forma lehergarriekin.

Poesia mugikorra grafiti lanak ematen dio izena proiektu osoari. Lan hau artistaren «poeta trashumante lanaz bi zentzutan egiten den metafora bat da». Batetik, konposaketako adreiluek gutxieneko bi aurpegi aurkezten dituzte. Gainera, alde batetik bestera mugitzen dira *Legó* bat balitz bezala. Honekin mezua txandakatzen du, «adreiluen malgutasunaren paradoxa eginez». Bestetik, margolariak bere lana batetik bestera eramateko egiten duen esfortzua adierazten du. Honekin, «ahalik eta jende gehienarengana hurbiltzea» du helburu.


Ikus-entzunezko arloan, *Alternatiba estetikoa* bideoa gauzatu du, bertan biltzen ditu

New Yorken irailaren 11ko atentatuek eragindako *shock*-a eta hiriak berak udazken eder batean duen bizitasuna. *Aurpegiaren beste aldean* instalazioarekin, ispilu eta atek erabiliz, «bakoitza bere buruaren aurrean» ipintzen du. «Harrokeriarekin parez pare, zailantzan jarriz bakoitzak ikusten duena eta besteek ikusten dutena berdina ote den».

Enrique Zaldua New Yorken jaio zen artista eta aktore bezala. Kazetari lanetan ere aritu zen zenbait aldizkaritan. Proiektu berri honen aurretik, harrera ona izan zuten bi serie gauzatu zituen artistak: *Alternatiba estetikoa* eta *Azalaren sustraia*. Egun, *Poesia mugikorra* lanen seriea lantzen ari da eta,aldi berean, aktore eta itzultzaile lanetan dihardu.



Erakusketak. Pintura lan ezberdinak eta adreiluz egindako grafitia ikus daitezke Enrique Zalduaren erakusketan. ESTI EZEIZA



'Uterolandia'. Pintura plastikoa mihise gainean. ESTI EZEIZA



'Al otro lado de la cara'. Pintura plastikoa da, egur gainean egindakoa. ESTI EZEIZA



'Politburocracia.com'. Teknika mistoak mihise gainean. *Politburo*: sistema politikoa itxietan agertzen da organismo hau. «Bere zibilbor ederrera begiratzea asko gustatzen zaio. Normalean buruzagi edo batzorde nagusi bat dago buruan. Antonomiak: demokrazia, gizarte zibila». ESTI EZEIZA

iragarki laburrak ▶

BASABI Inmobiliaria

Pablo Gorosabel, 40
1. planta - 7. bulegoa
20400 TOLOSA
Tel. eta Faxa: 943 65 55 87
mug.: 669 368 994

Alkiza. Familia bakarreko baxeta salgai. 4.000 m² dituen lursailarekin. 120 m² dituzten 3 solairu.

Alkiza. Berrikuntza behar duen baserria salgai. Informazio pertsonala.

Andoain. 80 m² dituen etxebizitza salgai. Erabat berritua. Dena kanpoaldera. Igoailuarekin. Ikuspegi ederrak.

Anoeta. Duplex etxebizitza estreinatzeko, lau logela, bi komuna, egongela, sukalde

eta terrazarekin. Garajea aukeran.

Belauntza. 3 solairuko bi familientzako etxea salgai.

Berastegi. Familia bakarreko baxeta salgai. 3.500 m²-ko lursailarekin.

Elosua. Berrikuntza behar duen baserria salgai. 35.000 m²-ko lursailarekin.

Ibarra. Berrituriko etxebizitza beheko solairuan, 30 m² dituen bulegoekin.

Donostia. Portu-Ene. Berrituriko

etxebizitza ederra. Eguzkitsua. Ikuspegi ederrak.

Berrobi. 50 m²-ko etxebizitza. Berritua.

Tolosa. Zumalakarregin, 150 m²-ko etxebizitza. Egoera ezin hobean. Garajea aukeran.

Tolosa. Zumalakarregin, berritzen ari diren etxebizitza, informazio pertsonala.

Tolosa. Santa Klaran, 90 m² dituen etxebizitza salgai.

Tolosa. Alokairuan sartzeko etxebizitzak ditugu aukeran,

lan kontratua eta bermeak aurkeztea beharrezkoa izango da.

Tolosa. Pablo Gorosabel. Eraikuntza berria azken etxebizitza salgai. Berrituriko.

Tolosa. Belateko zonaldean, trasteleku berriak salgai argiarekin, 9.480 eurotik aurrera.

Tolosa. Berdura plazan, berrituriko lokal komertziala salgai. Gutzia erakusleho.

Tolosa. Pablo Gorosabel. Eskina egiten duen 45 m²-ko lokal ederra salgai.

MENDIA ▶

Alpinismo ikastaroa antolatu du Goi Mendi Eskolak, Tena bailaran, Pirinioetan ibili nahi dutenentzat

Maiatzaren 13an eta 14an garatuko dute; izen-ematea zabalik da dagoeneko

ERREDAKZIOA

Neguko alpinismo ikastaroa antolatu du Gipuzkoako Goi Mendi Eskolak (GGME), maiatzaren 13an eta 14an, Tena bailaran (Huescako Pirinioak, Espainia). Neguan Pirinioetan ibili nahi duten edo elur-izotz korridoreak igotzen nahiz glaziarrak zeharkatzen hasi nahi duten mendizale federatuei zuzenduta dago batik bat. Helbu-

ria zailtasun ertaineko igorera nork bere kasa egiteko ahalmenaren eta teknikaren jabe egitea da. Hastapeneko maila izango da, 40 ikasleentzat egokitua eta lau ikasleko irakasle bat egongo da. Apirilaren 30a arte izena ematen dutenek 110 euro ordaindu beharko dute, eta maiatzaren 1etik aurrerakoentzat 126 euro. Gure eskualdeko mendizale orori deialdia luzatu nahi

izan dute, bertan parte hartzea anima daitezen.

Ikastaroaren edukia hiru zati tan banatu dute; batetik, norberaren erorikoak geldiarazteko teknikak ikastea eta praktikatzea; bestetik, kordadako segurtasun eta geldiarazteko teknikak ikastea eta, azkenik, jais-teko eta inguratzeko teknikak praktikatzea. Partaideek derri-gorrezkoa izan beharko dute federatu txartela. Behar beste

lagunek izena ematen ez badute auto partikularretan egingo da bidaia, eta autobusari dago-kion zenbatekoa itzuliko diete. Ikastaroaren zuzendaritzak ahalmena izango du egitaraua aldatzeko eguraldiagatik edo bestelako arrazoi batengatik. Halaber, diziplina arauak betetzen ez dituzten ikasleak ikas-tarotik kanporatu ahal izango ditu.

Ikasle guztiekin bilera buru-

tuko dute, maiatzaren 10ean, 20:00etan, Anoetako estadioko kirol etxean, xehetasunak zehazteko eta zalantzak argitze-ko; halaber, elurordeei buruzko hitzaldia emango dute. Bilerara joaterik ez duen ikasleak zuzendariarekin hitz egin beharko du. Matrikularen ordainketa kontu korronte honetan egin beharko dute interesatuek: 30350060410600056348. Eta informazio gehiago nahi izanez gero, 943 46 14 40ra jo daiteke, bai eta orokorra@gmf-fgm.org helbidera ere.

Prezioaren barnean sartuko dira egun bateko ostaturia, ikastaroaren edukia jasotzen duen txosten teknikoa, GGMEren material teknikoa eta autobu-sean joan-etorria.

TOLOSA ▶ KIROLA

Bolada onari eutsiz, beste hiru puntu batu ditu Hegoaldeak

Usabal kirolgunean jokatu zuten neskek iragan larunbatean Preconte Canariaren aurka, 9 eta 5eko emaitzarekin

NOELIA LATABURU

Gol zaparradaz gozatzeko aukera izan zuten, pasa den larunbatean, Usabalera joan ziren zaletuek, Hegoaldeko neskek Preconte Canariaren aurkakoan erdietsitako garai-penari esker. Markagailuak 9 eta 5ekoa azaltzen zuten amaieran, neurketa osoko «isla paregabea». Bolada onari eusten diote, honenbestez, tolosarrek; sailkapen nagusian zortzigarren postura igo dira, eta Kanariar Uharteetako taldea bi puntura dute. Maila jaisiera gero eta urrunago ikusten dute Hegoaldekoek, eta denboraldi ha-

SAILKAPENA ▶

ARETO FUTBOLA Ohorezko Maila.

Taldea	Puntuak
1. C.D. Futsi Navalcarnero	57
2. Tecnocasa Mostoles	57
3. UCAM Murcia	57
4. Femesala Elche	42
5. Mainfer Zaragoza	34
6. Kettal Fuenlabrada	33
7. Preconte Telde Canaria	31
8. Hegoalde K.E.	29
9. ADAE Valladolid	29
10. Finques Cadi Gironella	26
11. Cajasur Cordoba	24
12. Majadahonda Afar	21
13. F.S.F. Rioja Diamante	20

siera kaskarra dagoeneko ahantzi dute.

Nagusitasun osoz

Tolosarrek hasieratik hartu zituzten Preconteko aurkariak mendean, eta 2 eta 0ekoa bi jokaldietan lortu zuten berehalakoan. Oneoro aurretik izan ziren markagailuan. 9 eta 3koa arte, hiru gol jarraian lortu zituzten Amilibiaren neskek, eta segurtasun handia erakutsi zuten, defentsan nahiz erasoan. Isa birritan, Vicky ere bi aldiz, Miriam, Maider hirutan eta Alde izan ziren etxekoan gole-gileak.

TOLOSA ▶ KULTURA



Hirukidekoen bertso afaria, Kultur Astearekin amaitzeko

N. Lataburu ▶ Iragan ostiralean bertso afaria egin zuten, Hirukideko Kultur Asteari bukaera emateko. Anjel Mari Peñagarikano eta Bixente Gorostidi «zoragarri» aritu ziren Ero-Etxe elkartera bildu ziren irakasle zein gurasoen gozamenarako. «Oso saio atsegina» eskaini zuten bertsoari, eta jorratutako gaien artean ETAREN su-etena eta Kultur Aste honetan Hirukiden estreina-tu duten Xabil maskota izan ziren, besteak beste. HITZA

hitza **txokoa** *lagunen*

▶ HITZAko harpidedunen artean zozketatutako

Tolosako Udalak **Martxoaren 8**rako ateratako **KAMIXETEN** irabazleak:

- ▶ IZASKUN ZARATEGI AGIRREZABALA (VILLABONA)
- ▶ KARMEN IRAETA ARSUAGA (TOLOSA)
- ▶ GENO OTAMENDI ZUBELDIA (ALEGIA)
- ▶ IMANOL ODRIOZOLA GALARZA (TOLOSA)
- ▶ GARBINIEN MUJIKI LOPETEGI (VILLABONA)
- ▶ ARITZ LARRETA BEREZIARTUA (AMEZKETA)
- ▶ MAITE MUJIKI ARRONDO (BERASTEGI)
- ▶ MARITZU BERNABE GOROSTIDI (LEABURU-TXARAMA)
- ▶ GARBINE RUIZ DE EGUILAZ (TOLOSA)
- ▶ ESTHER ALDUNTZIN ZABALETA (ANOETA)

Irabazleak HITZAk Tolosako Araba Etorbidea 5ean duen egoitzatik pasa daitezke sariaren bila.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAren harpidedun ordaintzaileen artean zozketak astero



MUSIKA ▶



Elgoibarko lehiaketan parte hartu zuten Haitzbiki —ezkerrean— eta Haitzbakar taldeko partaideak, bere instrumentuekin. HITZA

Jendaurreko eskarmentua

Loatzoko ikasleak Elgoibarko lehiaketan aritu dira eta larunbatean Eskusoinu Topaketan izango dira

IMANOL GARCIA

Loatzo musika eskolakoak bere artea hainbat eszenatikietara eramaten ari dira egunotan. Haitzbakar eta Haitztxiki eskolako taldeek, esaterako, Elgoibarren egindako lehiaketan parte hartu zuten pasa berri den larunbatean. Ez zuten saririk lortu, baina garrantzi-

tsuena horrelako ekitaldietan jasotzen den esperientzia dela azpimarratu dio Iñaki Zalakain eskolako zuzendariak HITZARI: «Helburua ez da irabaztea, baizik ahal dela disfrutatzea. Eskolaren ingurutik ateratzea eta ahalik eta txukunen jotzea bilatzen da».

Horrelako hitzorduak instrumentu batean aurrera egiteko

motibatzaile bihurtzen dira. «Haurrek askotan nahi dute musika tresna bat aukeratzeko dutenean inongo sakrifiziorik gabe abestiak jotzea. Baina hori ez da posible, eta horrelako ekitaldiek motibatu egiten dituzte gehiago entseatzera». Biolinek, zeharkako flautek, pianoak eta eskusoinuek osatzen dituzte Haitzbakar eta

Haitztxiki talde instrumentala, Maria Jesus Arratibel eta Arantzazu Mujika irakasleen zuzendaritzapean.

Larunbatean, Lezora

Datorren larunbatean beste hitzordu bat dute Loatzo eskolakoek. Lezon Eskusoinu Topaketa izango da, iaz Tolosan

egin zena. 700 bat soinu-jole, perkusio-jole eta kantari ariko dira, horietatik 50 Loatzo eskolakoak. «Kalejira egingo dugu herrian zehar lehenengo», azaldu du Ainhoa Elizondo irakasleak, «eta ondoren kontzertua eskainiko dugu Bekoerota frontoian». Beste aukera bat, beraz, Loatzoko ikasleentzat jendaurrean aritzeko.

ZIZURKIL ▶

'Zizurkilgo ondarea eta baserriak' CDa kalean

ERREDAKZIOA

Zizurkilgo ondarea eta baserriak CD interaktiboaren aurkezpena egingo dute gaur. Atxulondo kultur etxean izango da ekitaldia, 19:00-etan hasita. Lan horretan, 500 toponimo eta 3.000 argazki bildu dituzte.

iragarki laburrak ▶

LANA

Ileapaintzailea.

Ileapaindegirako langilea behar dugu, lanegun erdirako. Bidali curriculum eta argazkia Tolosako lurre auzoa 20, 3.B helbidera.

ZIZURKIL ▶ HEZKUNTZA



Kroketak egiten aritu ziren ikasleak. HITZA

Egun Gastronomikoa San Millan eskolan

Abeletxera bisita, tortilla lehiaketa, DVDaren eta errezeta-liburuaren aurkezpenak, tartean

ERREDAKZIOA

Egun Gastronomikoa egin berri dute Zizurkil Goiko San Millan eskolan. Hiruhilabetean egin duten lanari amaiera emateko izan da. Testu mota ezberdinekin egiten dute lan, eta tarre horretan errezetak lantzen aritu dira, bai euskaraz eta bai gazteleraz.

Horrela, Egun Gastronomikoan, lehenengo ekitaldia Abeletxera joatea izan zen. Bertan, sukaldaria eta upeltegia erakutsi zizkieten, eta ikasleek kroketak egiten lagundu zuten. Jatetxeok, gainera, hamaiketako eskaini zieten. Ondoren, ikastetxera itzuli ziren eta han

tortilla patata lehiaketa egin zuten. Gurasoek prestatutako tortillak izan ziren lehian eta guraso bat, irakasle bat eta ikasle bat izan ziren epaimahaia osatu zutenak.

Arratsaldean DVD bat ikusi zuten. Ikasleek hiruhilabetean zehar egindakoak biltzen ziren. Gurasoek parte hartu zuten DVDa egiten, eta baita ikastetxean egindako ikuskapenean ere. Ondoren, ikas-denbora horretan bildutako errezetekin egindako liburua aurkeztu zuten. Oso gustura aritu dira ikasleak eta irakasleak, eta eskerrak luzatu zizkieten gurasoei eta Abeletxekoei bere partehartzeagatik.


parafarmazia
 • Haur elikadura
 • Haurrentzako osagaiak
 • Dermokosmetika
 • Fitoterapia
 • Ortopedia
 lurre auzoa, 7 • Tolosa
 Tel.: 943 57 95 28 • farmadenda@euskalnet.net

ALEGIA ▶ GIZARTEA

III. Zerbeza Feria prestatzen hasiak dira Intxurreko futbolariak

Heineken garagardo etxeak jarriko ditu aurtengo zortzi markak, frontoian eskainiko dituzten jakiak bultzatzeko



Jende andana bildu izan da aurreko bi edizioetan: Alegiako frontoian orduan ere afaria egin zuten. HITZA

NEREA URBIZU

Alegiako Elordi pilotalekuak aurten ere Zerbeza Feria antolatzeko atekak irekiko ditu: Intxurre futbol taldeak aurrera eramaten duen festa da, eta arutengoarekin hirugarrena izango dute.

Apirilaren 21ean eta 22an egingo dute III. Zerbeza Feria, ekarriko dituzten zortzi garagardo ezberdinekin. Aurten, Heineken garagardo etxeak ekarriko dituenak izanen dira, «denak ere, apartxuak eta gozoak».

19:00etatik aurrera zabalduko dituzte frontoiko atekak, ongi pasatu nahi duenarentzat, eta, nola ez, baita Intxurre futbol taldeari laguntza ekonomikoa eman nahi duenarentzat ere.

Barraren atzealdean lanean beti bezala Intxurreko jokalariek izango dira, eta haien artean moldatuko dira beste behin egarri direnei zerbitzeko.

Bestalde, arratsaldean hasita, bertan prestatutako ukondoa eta saltxitxak izango dira jangai, solomo pintxoek gain. Postre garaian gazta eskainiko dute, eta baita bizkotxoa ere. Frontoian parranda eta afaria, hortaz. Izanen da, beraz, zer jan eta zer edan. Prestatzen du-

ten guztia hara joaten diren aurrean egingo dute, bertan sukaldatzen baitute dena, sukaldetxo batean.

Aitzitik, sukaldeko jakiak egitea egokia bada ere, «beti ongi etortzen da jendearen laguntza bertan ere». Orain arte herriko jendea aritu izan da horretan, eta baita jokalarien gurasoak ere. «Prest dagoenak esan dezala», adierazi dute Intxurrekoek.

Lortutako diruarekin

Iaz 4.000 euro inguru lortu zituzten Garagardo Ferialan, eta honekin ezinbestekoak direnak ordaindu zituzten: edariak

eta jakiez gain, jokalarientzako arropa, fitxak, denboraldiko gastuak, edota epalleak, besteak beste.

Aurreko urteetan egin ohi duten bezala, aurten ere tike-tak erabiliko dira edaria eta janaria lortzerakoan.

Aurtengo berrikuntzak

Aurten ere musika egonen da pilotalekuan, jendea girotzeko. Aurten, baliteke taldetxoren bat edo beste joatea, baina aurrerago ziurtatuko dute. Jaialdiari buruzko informazio gehiago jakitea posible izango da laster, datozen egunotan kartel ofiziala aterako baitute.

AMEZKETA ▶ EUSKARA



Amezketako Euskara Elkarte, bileretako batean. N. URBIZU

Euskara Elkarte, asmo berriak bideratzen

Jaioberrientzako sehaska kanten diskoa oparituko diete guraso izango direnei

N. URBIZU

Hiru bat hilabete badira Euskara Elkarteok lehen bilerak egin zuten; iazko abenduaren 29an izan zen, hain zuzen ere, estreinakoa. Orduz geroztik maiz bildu dira, eta ari dira aurrerapausoak ematen, lanean.

Antolatutako lehen ekintza kantua-afaria izan zen; herritarren aldetik oso erantzun ona izan zuena, gainera. Ez da kantua-afaria izango, baina, Euskara Elkarteak antolatutako duen ekintza bakarra; «herrian egin behar asko dago eta oraindik». Taldea, euskara elkarte den aldetik, «euskarra sustatzea» du helburu nagusienetako bat, kideek azaldu duten moduan.

Sustapen lan horretan laguntzeko, honakoa proposatu dute: Amezketako Euskara Elkarteak sortuz geroztik jaiotako amezketarrei oparia egingo diete. Oparia euskarazko sehaska kantak dituen diskoa izango da. Beraz, umea espero dutenek, haurra izaten dute-

nean hor izango dituzte Euskara Elkarteok haien oparituarekin. Horren truke tratu bat egitea pentsatu dute: «Guk diskoa oparitu, baina gurasoek diskoa jarri behar dute!». «Bide batez, haurra izan behar dutenei zorianak», diote elkarteok.

Beste asmoak

Diskoarena, baina, ez da duten asmo bakarra: beste guztien berri izan nahi izanez gero, bileretan jakitera eman dituzte. Horretarako, etzi berriro dira biltzekoak, 18:30ean, balio anitzeko gelan.

Bestalde, elkarteok eskerriak eman nahi dizkiete herriko talai dantzari eta talaiak; izan ere, Inauterietan bildu zuten diruaren zati bat Euskara Elkarteari eskaini diote. Euskararen alde ekiteko erabiliko dute dirua; haiek esaten duten moduan, «Amezketaren alde, eta ezinbestez, Euskal Herriaren alde ekiteko».

▶ TOLOSALDEKO HITZA.INFO

'Zeuk idatzi'.

Tolosaldearekin eta Leizaldearekin zerkusua duen edozein albiste sartzeko aukera eskaintzen dizu euskarazko egunkariaren webguneak, Zeuk idatzi atalean. Anima zaitetz eta parte har ezazu bertan!

LAGUNAK
ERRETEGI-PENTSOAK

Langileak behar ditu:

- Sukaldaria. (Urte osoan)
- Zerbitzariak.
- Pentxiorako langilea.

943 833 701
629 335 403
ZARAUTZ

Tolosaldea 2006-7

telefono listin berria,
Telefonica eta
Euskaltelekin
eguneratua,
Tolosaldeako etxe
guztietan egongo da
hurrengo uztailean.



IBARRA ▶

Ibartar bat atxilotu dute, lapurretan ari zela

Herenegun goizeko ordubiak aldera izan zen gertaera Udal Haurtzaindegian

ERREDAKZIOA

Udal Haurtzaindegian lapurreta egiten saiatzeagatik M.G.C. 34 urteko ibartarra atxilotu zuen herenegun Ertzaintzak. Goizaldeko ordubiak aldera, auzokide baten deia jaso zuen Ertzaintzak, haurtzaindegian lapurreta egiten ari zirela esateko. Behala, patruila bat bertaratu zen, eta lapurrak haurtzaindegira sartzeko hautsi omen zuen kristala aurkitu zuten agenteek. Ertzainak berehala iritsi zirenez, lapurrak ezer hartu gabe ihes egin behar izan zuen, baina, hala ere, haurtzaindegitik berrehun bat metrora harrapatu ahal izan zuten.

Ertzainak lapurreta egiten saiatu izanagatik atxilotu egin zuen ibartarra. Adierazi dutenez, lehendik ere hainbat aurrekari polizia ditu.

LEABURU-TXARAMA ▶ HIRIGINTZA

N-130 errepideak duen «egoera txarra» salatu du Udalak

Lizartzatik Txaramako noranzkoan, ubegia igaro ostean, errepide alboan haitzak «erortzeaz» daudela adierazi dute

IÑIGO TERRADILLOS

Hainbat herritarrek eta Leaburu-Txaramako Udalak salatu dute N-130 errepideko zati batek ageri duen egoera «txarra». Hantza, Lizartzatik Txaramako noranzkoan, ubidea igaro ondoren, errepide ondoko mendi magaleko haitzak «erortzeaz» egon daitezke. Eta hain zuzen ere, egoera hori salatu nahi izan dute, bai bertatik igarotzen diren oinezkoentzat eta txirindularientzat nahiz ibilgailuentzat «oso arriskutsua» izan baitaiteke.

«Guk gure aldetik teknikari bat eman dugu zonaldea aztertzera, eta egin beharreko ikerketak egin ostean, egoera larria dela ohartarazi digu», azaldu du Joxe Kruz Goñi Leaburu-Txaramako alkateak. «Foru Aldundiari eskaria luza-



N-130 errepidea, Txaramako noranzkoan, ubegia igaro ondoren. Alboan dauden haitzak erortzeko arriskua dutela adierazi dute. i. t.

tu diogu, ezer larririk gertatu aurretik konpon dezatela eskatuz, baina ez dugu erantzunik jaso». Zonaldea ikertzeko eta hartu beharreko neurriak «le-

henbailehen» har ditzatela exijitu du Udalak; izan ere, «Aldundiari dagokio errepide horretan gertatzen direnez arduratzea».

LIZARTZA ▶

Haimar Altuna gose greban dago Meaux-en

Meaux-eko presondegian dagoen Haimar Altuna Ijuria lizartzarrak, Oier Goitia Abadia, eta Urtzi Zubizarreta Lizundia euskal preso politikoek bezala, gose grebari ekin zion hilaren 20an, «dagozkien hainbat eskubide» aldarrikatzeko; komunikazio arloan aspalditik dituzten «arazoak» salatzeaz gain, hilero dituzten bi bisitak bikoitzak izatea aldarrikatu nahi dute modu horretara.

IBARRA ▶

Mindegiagaren urtebetetzeko argazkia

Ia 4 urtez epaiketarik gabe kartzelan dagoen Jon Mindegiaga ibartarraren urtebetetze eguna apirilaren 5ean izango da, eta hori dela-eta argazkia egingo dute etzi, konzentrazioaren ostean.

TELEFONOAK ▶

Larrialdiak. ((112)) Osasuna.

- ▶ Alegialdea. Osasun z.: 653212
- ▶ Anoeta-Alkiza-Hernalde. Medikua: 65 23 39
- ▶ Asteasu. Medikua: 692423
- ▶ Baliarrain. Medikua: 889003
- ▶ Berastegi-Elduain. Medikua: 683361
- ▶ Bidegoian. Medikua: 681134
- ▶ Ibarraldea. Osasun ebea: 672411
- ▶ Ikaztegieta. Medikua: 653329
- ▶ Irura. Osasun zentroa: 690720
- ▶ Leitza. Osasun z.: 948 510800
- ▶ Orendain. Medikua: 655595
- ▶ Oresa. Medikua: 682228
- ▶ Tolosa.

- ▶ Anbulatorioa, larriald: 461111
- ▶ San Esteban: 006800
- ▶ Gernikako arbola: 006900
- ▶ Amaroako dispen.: 672637
- ▶ Asunzion klinika 675799 - 67 53 90 (larrialdiak)
- ▶ DYA: 672536
- ▶ Gurutze Gorria: 674888
- ▶ Villabona. Anbulat.: 006970
- ▶ Zizurkil. Aiztondo zerb: 693930

Garraioak.

- ▶ Renfe: 902 24 02 02
- ▶ Donostiako autobusa: 361740
- ▶ Tolosaldea bus: 650621
- ▶ Leitzaran autobus.: 948 221015
- ▶ Taxia: 670420
- ▶ Taxia (Leitza): 608 873016

Besterik.

- ▶ Ertzaintza: 538820
- ▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858
- ▶ Tolargi: 650016
- ▶ Iurramendi egoitza: 670325
- ▶ Tolosa gasa: 675320

BERASTEGI ▶ AZPIEGITURAK

Danboliñene baserriaren ondoan dagoen iturria eta aska bota berri dute

Aldin elkarteak gogoeta egin du desagertu berri den herriko ondarearen inguruan

ERREDAKZIOA

Egun batetik bestera, eta «herritarrek jakinaren gainean jarri gabe», desagertu da Berastegiko plazatik «bertako ondarearen zati bat»: Danboliñene baserriaren ondoko iturria eta aska. Gertaera horren inguruan gogoeta egin du Aldin kultur eta kirol elkarteak.

Garai batean, ura etxeetara iristen ez zenean, arropa garbitu ahal izateko, herrian zehar eraikin berezi batzuk zeuden, eta horietako bat zen bota berri dutena. Gaur egun, eraikin hauen erabilera bukatu da, eta kasu batzuetan, gehienez ere, iturri bezala erabiltzen dira.

«Hauetako eraikin batzuk gel-ditu zaizkigu eta iraganaren lekukoak direnez, denon ardura da zutik iraunaraztea; herria handitzen eta eguneratzen doan neurrian aldatuta batzuk egin beharko dira, beti ere herriko ondarea errespetatuz; eta noizbait herri ondarea ukitzea ezinbestekoa balitz, ahalegin guztiak egin beharko lirarteke kalteak ahalik eta txikiak izan daitezkeen».

«Bota berria izan den Danboliñeneko iturria berreraikiko al dute? Ikusiko al ditugu berririo harrizko aska eta teiltupeko habe zaharrak?». Galdera horiekin hausnarketarako bidea zabaldu nahi dute.



Goian, Danboliñene baserri ondoan kokaturiko aska eta iturria; behean, aska bota duten unearren irudia. HITZA

LEITZA ▶ EKONOMIA



Errotan, harrizkoa, hasten da katea: artaleak ezari-ezarian erortzen dira eta tranka-tranka, artirina fin-fin ehoa ateratzen da. Taloen lehengai garratzitsuen. JAIONE ASTIBIA



Orea sartu eta taloak eginda ateratzen dira makinatik. Hortik ontziratzera daramatzate. J. ASTIBIA

MIKEL LIZARRAGA ▶
TALOGILEA

«Taloa, edozein gauzekin»



Mikel Lizarragak, talotegiko bere lankideek bezala, hasi berri duten langintza honetarako makina bat proba egin ditu, etxean eta talotegian bertan, orearen egokitasun puntua bilatzeko. «Hori izan da akaso, gehien kostatzaiguna, ez hezeegia, ez lehorregia, katz puntua... eta labaren temperatura... Neurri egokiak bilatzea».

Nola da goxoa taloa?

Taloa, edozein gauzekin. Gainera, begira, guk pizzak ere egiten ditugu etxean: alde batetik erre, hor nahi ditugun osagai guztiak jarri eta gero labean beroaldia eman. Oso goxoa gelditzen da. Edo pintxoak egiteko, edo gaztarekin eta mermeladarekin... Ongi erretzea da sekretua: irintan pasa eta zartari gurian.

Eskaera bereziren bat izan duzue?

Getxoko kirol-portuan, *El Talo* izeneko taberna batetik. Izena bai, baina talorik ez zutela eta; Donostiatik ere bai, kasu bera izan dugu.

Izenekin ariz, izan duzue bada, horrekin halako zera bat, ez?

Taloei, euskal produktu tradizionala direla jarri nahi genien enbasean. Baina iruzurren ikuskaria delako batek ez zigun utzi, gaztelera «vasco» azaltzen zelako. Bartzuei alerta gorria pizten zaie hitz hori entzundakoa. ◀

Taloak prest, di-da batean

Leitzan taloak ontziratuta merkaturatzen dituen aurreneko lantokia ireki dute: erre eta beteta, edo gordinik, erraz asko prestatzeko moduan

JAIONE ASTIBIA

Taloak. Artirina, ura eta gatza. Oratu, zabaldu eta talo-burni gurian erre. Bero-bero daudela, hiru-giharrea edo gazta edo tartean sartuta edo hutsik, esnetan zopututa, hara zeinen mokadu goxoa. Goxoa bezain gurea, betikoa, tradizionala: aurrekoen oinarriak jakia; egun feria eta jaialdi berezietako eta etxe batzuetako gutzia. Orain, eskuragarri jarri du Leitzako Talotegiak, ontziratutako taloak merkaturatu baititu.

Taloak oso gogoko izanik ere, leku eta aukera puntualekako jakia, etxe batzuetan oraindik ere maiz jaten badituzte ere, «gaur egun daraman-gun bizimodu azkarraren ondorioz, haietan ere gero eta gutxiago» dastatzen dituztelako

iritzi dute Talotegiko arduradunek: Mikel eta Juan Ramon Lizarraga eta Marian Zestau dira enpresako bazkideak; Jesus Santxez, bertako langilea.

Eguneratuta

«Sukaldean denbora gutxi pasatzen dugu jada eta erraztasunera jotzen da». Bada, taloa noiznahi jateko bidea irudituzitzaie, hauek prestatuta eta ontziratuta merkaturatzea «egiteko erraza, azkarra» izateko moduan, eta «holakorik ez delako egin orain arte», noski. «Janari tradizionala, eguneratuta», horixe da beraien eskaintza.

Idea izanda, buru-belarri murgildu ziren lanean: tresneria lortzea, egokitzea, eta sortzea ere bai, izan zuten lehen eginbeharra. Urak beharrean

argi-indarrak mugitzen duen harrizko errota. «bi hilabetetik zorroztu egin behar izaten da hau, bestela artalea zanpatu egiten du eta irinik ez», argitu dute; zaia bereizteko galbahea; orea egiteko makina; taloak egiteko makina, «hau asmatzea lan zaila izan zen», gogora ekarri dute; erretako taloak egiteko, labea; hotz kolpea ematen duen makina «ontziratzeko produktuak hotza egon behar du», azaldu dute; eta azkenik ontziraketa: «aurrena hutsa egin eta gero gas geldoan», zehaztu dutenez.

Urratsez urrats joanez, artalea ehotzetik hasi eta taloak ontziratu arte, prozesu guztia bertan egiten dute. «Gure produktua gerok nahi bezala izatea nahi dugu, horregatik sartu genuen errota ere, bestela ehotako irinekin frogak egin geni-

tuen arren, ez baitzen guk nahi genuen leuntasunekorik lortzen».

Beraiek, ordea, lehengaiari eman diote «berbiziko garratzia»: «Produktu ona atera nahiz, artoa, ekologikoa erabiltzea aukeratu genuen hasieratik, transgenikoak zer ondorio eragin ditzakeen ez daki inork eta. Hemen bertako artoa ere ikertzen ari gara. Bitartean, ahalik eta artorik sanoena erabiltzen dugu».

Gordinik nahiz erre, hutsik edo beteta, dagoeneko Nafarroako eta Gipuzkoako denda ttiketian eta ostaleritzan taloak erosteko modua badago; «laster Bizkaian, eta sarri Araban eta Iparraldean ere» hasiko omen dira. Aitatu dutenez, taloak izoztuta ere eskaintzeko asmoa badute aurrerantzean. «Noiznahirako prest», hara.

▶ hilberriak ▶ urteurrenak ▶ eskertzak

Gipuzkoan 50.000 etxetara

HITZA guztietan prezio beragatik

ESKELAK
19:00ak arte hartzen dira

Telf.: 943 65 56 95
tolosaldean@tolosaldecohiza.nfo

urteurrena ▶

Preshen Maizkurrena Agirrezabala
(l. urteurrena)

Gure artean
izango zara beti



Haren animaren aldeko meza Egiako Maria Reina elizan izango da igandean, apirilak 2, 11:00etan.

Emazte eta seme-alabak

DONOSTIA, 2006ko martxoaren 29a

Harpidedunei banatua ▶ 2006ko martxoaren 29a, asteazkena ▶ IV. urtea

GAURKO EGURALDIA

goizez



arratsaldez



beroena

13

hotzena

10

BIHARKO EGURALDIA

goizez



arratsaldez



ELURRA ARALARREN

Guardetxe:

gaur: ez / bihar: ez

Pagomari:

gaur: ez / bihar: ez

Gipuzkoako Foru Aldundia

Eusko Jaurilaritza, Kultura Saila

HITZA-KO BEZEROEN ARRETA ZENBAKIA (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko...)

943 30 43 46

AGENDA ▶

DEIALDIAK

Asteasu. 18/98ko auzipetuei eta bereziki Nekane Txapartegi herritarrari elkartzuna adierazteko afaria Aitzondo elkarte, etzi. Izen-ematea, 615 70 87 32an.

Asteasu-Tolosa. *Konponbide garaia da* lelopean larunbatean Bilbon egingo den manifestaziorako autobusak antolatu dituzte. Asteasukoa plazaatik aterako da, 15:15ean (izen-ematea, tabernatan eta 615 70 87 32an). Tolosakoa 15:30ean, Triangulotik (izen-ematea, ohiko lekutan).

Tolosa. Igandean, apirilaren 2an, Kirikiño aisialdi taldeak, urtero legez, guraso formazio eguna egingo du, Hirukide Jesuitinatan. 10:00-13:30era, otoitza, hitzaldia eta hamaiketakoa izango dira; *Hezkuntza afektibo-sexuala* saioa eskainiko du Eduardo Dovale Muiños psikologo eta nerabeen hezkuntza afektibo-sexualean adituak. 14:00etan, bazkaria; 16:00etan, kirol saioa. Izena emateko azken eguna, gaur.

HITZALDIAK

Ibarra. Kartzelako bizi baldintzez jardungo du Begoña Uzkudunek, eta ETaren su-etenaren ondotik egingo diren lanez Argitxu Martinez eta Irati Aranzabal Etxerat-eko kideek. Ibarra Herri Ekimenak antolatuta.

ZINE-KLUBA

Alegia. *Bailar en la oscuridad.* 21:30ean, Gaztebean.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
Areso. Goizueta, F. Loidi etxea. 112.
Tolosa. Tolosa, M. I. Kale Nagusia, 7. 943 67 06 48.

IRRATIA

Txolarre irrattia (107.5, 101.2 FM)
11:00-14:00. *Tolosaldeko ahotsa* magazina: eguraldia Joxe Landarekin, HITZaren errepeaso, agenda, albisteak, lehiaketa, disko eskainiak...
18:00-19:00. *Irauli uhinak.*
21:00-22:30. *Bide okerretik.*

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



Kultur eta Osasun Gune berria bisitatu zuten. HITZA



60 bat lagun elkartu ziren Asteasuko Sarasola sagardotegian. HITZA

Egun-pasa Larresorokoekin

LEABURU-TXARAMA ▶ 1996ko XIV Orduko Ibilaldian elkar ezagutu zutenetik askotan biltzen dira leaburuarrak eta Larresoroko Ote Lore elkartekoak

ERREDAKZIOA

Tolosako Aralarko Adiskideak elkarteak 1996an antolatutako XIV Orduko Ibilaldian, Larresoroko (Lapurdi) Ote Lore elkarteko eta Leaburu hainbat lagunek topo egin zuten; elkar ezagutu eta adiskidetu ziren. Berazubin, agurtzerakoan, harreman hori ez galtzeko zerbait egitea pentsatu zuten. Ordutik, askotan elkartu izan dira, batzuetan heman, han bestetan.

Igande honetan Txaramako plazan ongiatorria egin zieten leaburuarrak Larresorokoei, eta trikitixa doinuez lagunduta hamaiketakoa egin zuten. Eguerdian Kultur eta Osasun gune berria ikusi, eta Asteasuko Sarasola sagardotegira joan ziren gero guztiak.

60 bat lagun elkartu ziren egun-pasa egiteko. Musika, dantza saioak eta jai giroa ez ziren falta izan. «Kasualitatez, gainera, Iparraldeko abesba-



Leaburu-Txaramakoak eta Larresorokoak, elkarrekin, sagardotegiaren kanpoaldean. HITZA

tza bateko kideek bazkaria zuten sagardotegi berean, eta kantu eta kantu aritu ziren, giro

atsagina sortuz», azaldu dute. Hurrengo hitzordua antolatzen hasiak dira Leaburuak eta

Larresorokoak. Maiatza aldean mendi irteera egiteko asmoa dute, Larte eta Orexa inguruan.

AGURRAK ▶



URTE ASKOAN
Sixta Bengoetxea (Gaztelu).
Gaur 84 urte. Muxu bat amona politikari Eñaut eta Iratiren partetik.



ZORIONAK
Amona, zure 78 urtebetetze egunean, zorionak eta muxu bat familia guztiaren partetik.

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

▶ HITZaren egoitza
TOLOSAN
Araba etorbidea, 5 behea

▶ HITZaren egoitza
LEITZAN
Udaletxeko bulegoa

hitza
agurren tarte

Urtebetetzeak,
urrezko ezteiak,
ezkontzak, jaioberriak...